

LEPALUZEAREN BIHOTZA

—Ba al dakizue zein den bihotzik indartsuena duen lurreko ugaztuna?

—Lepaluzea, andereño.

—Oso ondo, Gorka. Nolatan dakizu hori?

—Uda honetan Afrikan izan gara, andereño. Kenian safari bat egiteko ilusioa zuten nire amak eta bere bikoteak eta bidaia egin genuen. Bertako tribu batekin pasa genituen bi aste. Gure asmoa ez zen hain luze geratzea, baina gindoazen autoa zisko eginda utzi zuen errinozero batek. Badakizue nolakoa den nire anaia, beti xaxatu eta xaxatu... eta errinozero hark ez zuen txantxetarako gogorik!

—A ze beldurra!

—Bai ba. Autoan babestu ginen hanka egin zuen arte.

—Beldur galanta pasako zenuten, ezta?

—Apur bat bai, baina berehala ohartu nintzen errinozero hark ez zigula kalterik egin nahi. Bakean utz genezan baino ez zuen nahi; eta denak bere adarrera errenditurik sumatu gintuenean, baretu, eta ospa egin zuen okotza kopeta baino gorago zuela. Orduan agertu ziren masaiak. Ondo ote geunden galdetu ziguten eta beraien tribura eraman gintuzten.

—Bertako jendearekin harremana izan zenuten beraz? Nola ulertu zenuten elkar?

—Elkarri begietara begiratzuz. Nire adineko haur bat bazen tartean, Naiyomah zuen izena, eta berehala egin ginen elkarren lagun. Gepardoa baino azkarragoa zen korrika! Sabanako sekretu asko erakutsi zizkidan. Begira! Berak emandako opari bat dut patrikan.

—Zer da? Hezur bat?

—Bai, lepaluze baten hezurra da. Naiyomah-ren aitak erregalatu zidan. Bera zen tribuko aztia. Ulertu nionaren arabera, talisman bat da, aparteko botereak dituena.

—Aparteko botereak? Zer egiten du, elefanteak baino indar handiagoa eman dizu? Hamaike-takoa krokodiloak baino azkarrago irensteko gaitasuna?

—Ezta pentsatu ere! Besteek sentitzen dutena sentitzeko gaitasuna eskaintzen du hezurtxo honek. Begira, nahi baduzu aproba egingo dugu. Hartu ezazu eskutan hezurtxoa eta berehala esango dizut zer sentitzen ari zaren.

Irakasleak esandakoa egin du. Gorkak begiak itxi ditu eta andereñoaren azalean sartu da. Bere barruan jakinmina sumatu du, batetik; baina, bestetik, Gorkak esandakoan ez duela sinesten ere sumatu du, eta horregatik esan dio:

—Nire amak ere ez zidan sinesten hasieran...

“Ama” hitza ahoskatu orduko Gorkak krakatekoa sentitu du bihotzean. Andereñoaren baitan tristura zabaldu da esne basoak gainez egin eta esnea mahai gainean zabaltzen den moduan. Andereñoaren ama oporretan ziren bitartean hil zela jakin berri du Gorkak eta andreñoa atsekabetuta zebilela geroztik.

—Sentitzen dut, andereño. -esan dio Gorkak. Andereñoaren begiak urez bete dira.

Gorkak ez ezik, klaseko beste guztiek ere sumatu dute irakaslearen goibeldura eta beraiek ere triste jarri dira.

-Txirriiiiiiiin!

Zorionez txirrinak puskatu du giro triste hura eta ohi bezala saskibaloian jolastera abiatu dira haurrak korrika. Taldeko jokalaria onenak dira Alazne eta Gorka eta, txandaka, taldeak osatzen hasi dira.

Juan -trakets samarra izaki- inork ez du bere taldean nahi izaten; beti izaten da azken hautatua. Gorkak hezurtxoa estutu du patrikan, ordea, eta Juanen sentipenak bereganatu ditu bat-batean: Juanen barruan egun euritsu bat sumatu du, urontzitik ateratako arrain bat. Ez zuen espero une hori Juanentzat hain garrantza izan zitekeenik. Horregatik, Gorkak bere talderako hautatu du. Juanen pozaz gozatzeko aukera izan du orduan Gorkak. Izurdeak saltoka sumatu ditu egun eguzkitsu batean.

Zenbait egun pasa dira eta ikastetxeko bizitza erabat aldatu du Gorkaren gaitasunak. Berak honezkero badaki bere dohaiak asko lagun diezaiekela besteei. Bi pertsonak, haserretu, eta txakalaldia duten aldiro bataren eta bestearen azalean kokatzen da eta zer sentitzen duten esaten die elkarri. Konturatu da istiluetako gehienak erraz konpon daitezkeela: besteei zer nahi dugun eta zer behar dugun azaltzen ez dakigulako haserretzen garela askotan. Gorkak ez dauka parekorik sentimenduen hizkuntzan!

Gaur, ordea, ez du hezurtxoa estutu beharrik izan sentipenen berri izateko. Bere gelako Iza-rok “lepoluze” deitu dio eta gainontzeko gehienek barre egin dute. Gorka triste eta minduta sentitu da, eta amorruapur bat ere sentitu du bere lagun on batzuek barre egin dutelako, Izarori kargu hartu beharrean.

Gorkak hezurtxoa estutu du eta Izaroren sentipenak sentitu ditu: Iza-ro minduta zegoen Gorkak lehen hiru aldiz kasurik egin ez diolako; gainera, konturatu da Iza-rok oso gustuko duela Gorka, bere ondoan dagoenean elurretatik bueltan sutondoan jarrita bezain goxo sentitzen dela. Izaroren beharra berari kasu egitea zela konturatu denean, lasaitu egin da Gorka, konturatu baita berari kasu egiteko aurkitu duen modu bakarra min ematea izan dela.

—Sentitzen dut lehen kasu egin ez izana, Iza-ro. Ez naiz konturatu niri deika ari zinenik - esan dio. Eta Izaroren begiak distiraz bete dira.

Iza-rok bere sentimenduak hain ondo irakurri dizkiola ikusita hezurtxoaren boterea probatu nahi izan du. Ez da bakarra izan. Gainontzeko klasekideek ere banan-banan hartu dute hezurra eskuetan eta txundituta gelditu dira emaitzarekin. Lehen gaizki xamar moldatzen zirenak ere konturatu dira elkarri aitortutako maitasun asko gordetzen zutela gelakideek. Beesteen sentimenduak errespetatzen trebatu dira, eta besteen benetako beharrak identifikatzen.

Eta bat-batean, magia kolpe batez, Gorkaren hezurtxoa desagertu egin da. Tragedia gaitza izan da klasekoentzat hasieran, baina segidan konturatu dira ez dutela hezurtxo horren beharrik. Behin bestearen azalean jartzen ikasi duenak, betiko gordetzen duela botere hori. Lepaluzearen indarra deitu diote. Eta zuk, bai al duzu lepaluzearen botererik?